

Dock Of The Bay®

**DONOSTIAKO 7.
MUSIKA
DOKUMENTALEN
NAZIOARTEKO
JAIALDIA**

0INARRIAK 2014

DOCK OF THE BAY

Dock of the Bay 7 Donostiako musika dokumentalaren zinema jaialdia izango dugu aurten ere hiriko pantailetan, musikaren mundu zabala, alderdi guztiei erreparatuta, landuko duten musika dokumentalak eskaintzeko helburuarekin.

Dock of the Bay 7 festibalaren helburuak izaten jarraitzen du musika munduaren hainbat alderdiri buruzko dokumentalak proiektatzea.

Dock of the Bay 7 jaialdia Donostian egingo da, 2014ko urtarrilaren 6etik 12ra.

Festibalak bi lehiaketa atal izango ditu: bata luzemetraietarako eta bestea laburmetraietarako. Jaialdira aurkeztutako lanak baloratzeko, zinema, musika eta kultura munduetako profesionalek osatutako nazioarteko epaimahai bat eratuko da.

JAIALDIAREN HELBURUAK

Dock of the Bay musika dokumentalei eskainitako jaialdi bat da, eta estatuko nahiz atzerriko lanak onartzen ditu. Lan horiek hainbat alderditatik landu dezakete musikaren mundua, alderdi tematikoak nahiz formalak.

JAIALDIAREN EGOITZA

Trueba Zine aretoak eta antzoki Zaharra Donostian

JAIALDIAREN DATAK

2014ko urtarrilaren 6tik 12ra

JAIALDIAREN SAILAK

Dock of the Bay jaialdiak bi sail ditu, erakusketa eta lehiaketa, eta estatuko nahiz atzerriko lanek parte har dezakete.

JAIALDIAREN OINARRIAK ETA ARAUDIA

Jaialdira aurkeztutako lanek kreazio dokumentalak izan behar dute, musika munduari buruzkoak, eta mundu horren edozein alderdi landu dezakete.

Filmen inskripzioa dokumentalen ekoizleek, errealizado-reek edo lege ordezkariak egin behar dute.

Lanak aurkezteko azken eguna: 2013ko azaroaren 30. Jaialdian parte hartzeko nahitaezko betekizuna da filma 2012ko urtarrilaren 1aren ondoren ekoiztea izatea eta areto komertzialetan proiektatu gabea izatea.

Jaialdian lehiatuko den kategoria bakarra, hain zuzen, dokumental luzemetraia izango da. Luzemetraiatzat hartuko dira 50 minutu baino gehiagoko ikus-entzunezko lanak.

Hautapen batzordea antolakuntzak izendatutako pertsonak osatuko dute.

Araudi hau ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzen da. Zalantzarik izanez gero, gaztelaniazko bertsioa da balioduna.

Film bat inskribatzeak ARAUDI hau onartzea dakar.

Dock Of The Bay®

DONOSTIAKO 7.
MUSIKA
DOKUMENTALEN
NAZIOARTEKO
JAIALDIA

OINARRIAK 2014

INSKRIPZIOA ETA PARTE-HARTZEAHARTZEA

Lanak inskribatzeko, posta arrunta edo on-line sarea erabil daiteke (Movibeta plataforma).

Posta arrunta erabiliz gero, lanaren kopia bat (DVD) eta araudi honi erantsitako inskripzio orria bidali behar dira, helbide honetara:

Dock of the Bay7
Prim kalea, 59, 4ºD 20006
Donostia (Espainia)

On-line inskripzioa egiteko, ENLACE esteka erabili behar da.

Dokumentalak jatorrizko bertsioan aurkeztuko dira, azpigituluekin (JBA), eta ingelesezko eta gaztelaniazko azpigituluak onartuko dira.

Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko inskripziogastuak, eta ez da inskripzioan emandako materiala itzuliko, kasu berezietan izan ezik. Hautatutako lanen zerrenda abenduaren 1etik aurrera jakinaraziko da.

Festibalean parte hartzeko hautatzen diren dokumentalek honako hauek aurkeztu beharko dizkiote antolakuntzari:

- Elkarrizketen zerrenda
- Filmaren 3 argazki (gutxieneko bereizmena: 300 ppp)
- Jada ekoiztiko edozein motatako promozio materiala
- Kopia bat Dcp, Digibeta edo antolakuntzarekin adostutako beste formaturen bat)

Filmaren dokumentuak eta proiektiorako kopia helbide honetara bidaliko dira:

Dock of the Bay7
Prim kalea, 59, 4ºD 20006
Donostia (Espainia)

Antolakuntzak ez ditu bere gain hartuko filmaren garraio-gastuak.

Jaialdiaren Zuzendaritzak erabakiko du zer ordenatan eta zer egunetan proiektatuko den lan bakoitza. Film bat jaialdirako onartzen bada, ezin izango da erretiratu proiektio baimena izenpetzen denetik, eta hornitzailea behartuta egongo da antolakuntzaren esku uztera dokumentalaren proiektiorako behar diren material guztiak.

Dock Of The Bay®

DONOSTIAKO 7.
MUSIKA
DOKUMENTALEN
NAZIOARTEKO
JAIALDIA

OINARRIAK 2014

EPAIMAHIA

Jaialdiaren Zuzendaritzak izendatuko du epaimahaia, eta zinema, musika eta kultura munduko profesionalak eratuko dute.

Sarien erabakia Epaimahaiaren erantzukizuna izango da. Epaimahaiak bost kide izango ditu gutxienez, eta kopurua bakoitia izango da beti.

SARIAK

Festibalak sari bakarra izango du:

Saria Dock of the Bay dokumental luzemetraia onenari Nazioarteko epaimahaiak 2000 euro-ko saria emango dio dokumental luzemetraia onenari. (zergak barne)

*Kopuru gordin hauei indarrean dagoen araudi fiskala aplikatuko zaie.

Saritutako dokumentalek saria aipatu beharko dute copia guztien kreditu titulu, prentsa ohar eta publizitatean. Gainera, epai erabakiaren testua errespetatuko dute hitzez hitz, eta Festibalaren logotipoa erabiliko dute, egoki izanez gero. Logotipoa jaialdiaren web orri ofizialean eskura daiteke.

“Film luze dokumental onenarentzako saria” ordaindu egingo zaizkio egileari, ekoizpen-etxeari edo lana lehiaketan izena eman duen pertsonari. Saria banku-transferentzia bidez ordainduko da jaialdia amaitu eta ondorengo egunetan.